



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko apirilaren 5a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan beken arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa. Jabeldura erretiratzea (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Agenda Digital berri bat idatz dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urratsak egin ditzan hizkuntz normalizazio-politikak koordinatzeko batzorde bateratu bat eratzeko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da planifikazio-neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foruzaingoa sar dezan erretiro-adina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartzen dituen Errege Dekretuan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaio tratamenduari buruz, eta hedabideetan emakumezkoen kirola ikusaraztea bultzatzea. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da onura publikoaren deklarazioa ken diezaion Hazte Oir elkarteari. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia aldatzea (10. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzkoa.

ATARIKOA

2013ko maiatzaren 9an, Auzitegi Gorenak zoru-klausulen neurrigabetasuna aztertu zuen 241/2013 zenbakidun epaian, eta klausula horien deuseztasuna deklaratu zuen. Hala ere, deuseztasunak ez zuen eraginik izan gauza epaituaren indarra duten ebazpen judizialen bidez behin betikoz erabakitako egoeretan, ez eta 2013ko maiatzaren 9a baino lehen ordaindutako kopuruetan.

Auzitegi Gorenak denbora-muga ipini zion atzeraeraginari. 2015eko martxoaren 25eko epaiaren bidez, Auzitegi Gorenak atzeraeraginkortasunaren muga berretsi zuen. Doktrina gisa hauxe ezarri zuen: 2013ko epaian ezarritako doktrina aplikatzearen ondorioz zoru-klausula bat neurrigabetzat jotzen denean, mailegu-hartzaileari 2013ko epaiaren argitaratze-datatik aurrera ordaindutakoa itzuliko zaio.

Hala ere, Espainiako zenbait auzitegik, Europar Batasunaren zuzenbidean oinarrituta, zalantzan jarri zuten Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean, auziaurreko zenbait igorpenen bidez. 2016ko abenduaren 21ean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-154/15, C-307 /15 eta C-308/15 gaiei buruzko epaia eman zuen, eta epai horretan erantzuna eman zien aurkeztutako auziaurreko arazo-ei.

Epai horren bidez, Justizia Auzitegiak esan du Kontsumitzaileekin egindako kontratuetako abusuzko klausulei buruzko Kontseiluaren 93/13/EEE Zuzentarauaren 6.1. artikulua zentzu honetan interpretatu behar dela: hain zuzen ere, aurka egiten diola harako jurisprudentzia nazionalari, zeinaren bidez denbora-muga ezartzen baitzaio kontsumitzaile baten eta profesional baten arteko kontratu bateko klausula baten abusuzko izaeraren deklarazioarekin –zuzentarauaren 3.1. artikuluen arabera– lotura duen itzulketa-eraginari, halako moldez non itzulketa-eragin horiek mugatzen diren aipatu klausularen abusuzko izaera deklaratu zuen ebazpen judiziala eman zenetik aurrera klausula hori aplikatzearen ondorioz bidegabeki ordaindutako kopuruetara soilik.

Horren ondorioz, 2017ko urtarrilaren 21ean argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean Zoru-klausulen alorrean kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzko urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Lege-dekretua. Zioen azalpenean adierazten denez, araudi berriaren xedea da "bide erraz eta ordenatua ezartzea, kontsumitzailearentzat borondatezkoa izan dena, ahalbidetuko duena kreditu-entitatearekin akordio batera iristea, haien arteko desadostasunak kopuru horien itzulketaren bidez konpontzeko". Kontuan hartuta itzulketa horrek eragin fiskalak sortzen dituela, horretaz gain arautzen da entitate finantzarioekin eginiko akordioetatik eratorritako maileguen interes-tipoak mugatzeko klausulak itzultzeagatik jasotako kopuruen trataera fiskala. Horretarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia aldatu da.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoak xedatzen du Nafarroak, foru araubidea dela-eta, ahalmena daukala bere tributu araubidea ezartzeko, mantentzeko eta arautzeko. Ahalmen horri dagozkion eskumenak erabilia, arautu beharrekoa da Nafarroako zergadunentzat zer zerga-eragin dituen maileguen interes-tipoak mugatzeko klausuletatik

eratorritako kopuruen itzulketak, entitate finantzarioekin eginiko akordioen ondoriozkoak.

Horregatik guztiagatik, berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari –ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia–, eragina izanen duena indarrean sartu zenetik urtarilaren 20ko 1/2017 Errege Lege-dekretua, Zoruklausulen alorrean kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriek buruzkoa, eta preskribatu gabeko lehenagoko ekitaldietatik.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri berri bat, berrogeita hamabigarrena, gehitzea ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari.

“Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Maileguen interes-tipoak mugatzeko klausuletatik eratorritako kopuruak entitate finantzarioekin eginiko akordioen ondorioz itzultzeagatik edota epaiak edo arbitraje-laudoak betetzeagatik jasotako kopuruen trataera fiskala.

1. Zerga honen zerga-oinarrian ez da sartuko maileguen interes-tipoak mugatzeko klausulak aplikatu izateagatik lehenago sorturiko interesak direla-eta entitate finantzarioei ordaindutakoak diren kopuruen itzulketa, haiekin eginiko akordioen ondoriozkoa, esku-diru nahiz bestelako konpentsazio-neurrien bidezkoa, ezta haiei dagozkien ordain-interesak ere.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako itzulketaren xede diren kopuruek, zergadunak aurretiaz ordaindu dituenek, ondoko trataera fiskala izanen dute:

a) Zenbateko horiek aurreko ekitaldietan ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatiko kenkariaren zati izan baziren, zenbateko horiek direla-eta kenkaria aplikatzeko eskubidea galduko da; hala, entitate finantzarioarekin akordioa egin zen ekitaldian sorturiko kuota likidoari gehitu beharko zaizkio; soilik, kasuko likidazioaren bidez tributu-zorra zehazteko Administrazioak duen eskubidea preskribaturik ez dagoen ekitaldietan bidegabeki kendutako kopuruak, berandutza-interesak sartu gabe.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako gehikuntza ez zaie aplikatuko entitate finantzarioak, ukitutako

zergadunarekin akordioa egin ondoren, maileguaren printzipala murriztera zuzenean bideraturiko zenbatekoei.

b) Zenbateko horiek gastu kengarritzat hartu baziren halako ekitaldietan non Administrazioak kasuko likidazioaren bidez tributu-zorra zehazteko duen eskubidea preskribaturik ez dagoen, izaera hori galdu eginen dute eta ekitaldi horiei dagokien autolikidazio osagarria eginen da, zehapen, berandutza-interes edo errekarurik gabe, akordioaren dataren eta zerga honen autolikidazioa aurkezteko hurrengo epea amaitzen den dataren arteko epean.

c) Zergadunak zerga honengatiko autolikidazioa aurkezteko epea amaitu gabeko ekitaldietan eta entitate finantzarioarekin kasuko zenbatekoak itzultzeko akordioa egin baino lehen ordaindutako zenbatekoak eta aurreko a) letrako bigarren lerrokadan aipatzen diren zenbatekoak ez dira sartuko ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatiko kenkari-oinarrian, eta, halaber, ez dira gastu kengarritzat hartuko.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, era berean, 1. idatz-zatian aipatutako kopuru-itzulketa egin bazen ebazpen judizialak edo arbitraje-laudoak exekutatzearen edo betetzearen ondorioz.

4. Finantza-entitateek Nafarroako Foru Ogasunari ziurtagiri bat igorri beharko diote, eta hartan jaso beharko dituzte epaiketaz kanpoko akordioen, epai judizialen edo arbitraje laudoen exekuzioaren edo betetzearen terminoak, aurreko idatz-zatietan xedatutako neurrien tributu-kudeaketa errazte aldera.

Horretarako, honako hauei buruz informatu beharko dute:

– itzultzen diren kopuruez, edozein dela ere horretarako hautatutako modua (eskudirutan itzultzea, mailegua gutxitzea edo beste batzuk), zein urtetako ordainketak diren zehaztuta.

– ukitutako zergadunaren edo zergadunen identitateaz.

Informazio-betebehar horren ez-betetzea tributu arloko arau-haustea izanen da, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 72. eta 74. artikuluekin bat”

Foru Legea, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena

ATARIKOA

Nafarroako Foru Parlamentuak 1981eko urriaren 26an hartutako Erabakiaren bidez onetsi zen Nafarroako banderari eta armarriari buruzko Araua. Hauxe dio haren 4. artikulua: "Arau honen funtsezko edukia Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko oinarrien negoziatioetatik irtezen den testuari gehituko zaio".

Nafarroako banderari eta armarriari buruzko Arau horretan xedatutakoa betetze aldera, Foru Diputazioak 1981eko azaroaren 12ko Erabakiaren bidez onetsi zuen Nafarroako armariaren grabatuaren eredu ofiziala, bai eta haren banderarena ere.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak Nafarroako armaria eta bandera definitzen ditu 7. artikuluan, honela:

«1. Nafarroako armaria osaturik dago hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko kateez, kate-mailazko zortzi besoen elkargunean esmeralda bat dutela, eta ororen gainean, berriz, errege koroa, antzinako Nafarroako Erresumaren sinbologia.

2. Nafarroako bandera gorria da, erdian armaria duela».

Nafarroako sinboloei buruzko maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legearen bidez zehaztu zen ezen Nafarroako sinboloak zirela Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 7. artikuluan jada jasotakoak; hau da, bandera eta armaria; eta, horiez gain, ereserki gisa Gorteen Himnoa,

zeinak, atarikoan adierazten zenez, jatorria Erresumaren sarrerarako martxa-n baitu, Nafarroako Gorteak beren bilkurak egitera Ederraren Aretorantz iragaten zirenean Iruñeko Katedralaren klaustroan interpretatua.

Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen atarikoan honela esaten da: "Gai honi buruzko aurreko lege-arautzeek ez dute izan Nafarroan behar adina elementu juridiko botere publikoek modua izan zezaten eragingarritasunez zuzendu ahal izateko afera honetan izan diren eta gaur egun ere izaten diren irregulartasun ugari: zenbait udaletan Euskadiko Autonomia Erkidegoko bandera ofiziala baizik ez dute jartzen, beste batzuetan Euskadiko Autonomia Erkidegoko bandera Espainiakoarekin eta Nafarroakoarekin batera, nahiz eta ageri-agerikoa den Nafarroa ez dela autonomia erkidego horretako parte. Euskadiko erkidegoaren sinbologia agertzeak irudi okerra eman dezake, erakundeen aldetiko errealitate faltsu batena hain zuzen".

24/2003 Foru Legeak, Nafarroaren oinarritzko hiru sinbloen erabilera erabat arautzeaz gain, «botere publikoei egintza jurisdikzional eta administratiboetarako aukerak eskaini nahi dizkie sinbolo horien erabilera sustatzeko eta, bereziki, babesteko». Horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak hainbat demanda aurkeztu dituzte administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, foru lege horren 4.1. artikuluan oinarrituta, zeinak ondoko xedatzen baitu: «Foru lege honetan xedatutakoaren kontra doazen egintzak eta ebazpenak, edozein korporazio edo aginterenak, erabat deusez izanen dira. Horien inpugnazioarako ekintza publikoa izanen da eta Nafarroako Gobernuak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan inpugnatu ahalko ditu, errekerimendua egin ondotik betiere, toki araubideari buruzko legerian ezarritako baldintzetan». Halaber, «administrazio arauhaustetzat hartuko dira lege honetan jasotako aginduak urratzea dakarten jokabideak». Seigarren artikulua araber, «eraikuntza edo egoitza administratiboetan Nafarroako bandera bereizgarri gisa publikoki erabiltzeak ezinezko bihurtzen du haren ondoan aldi berean besterik jartzea, non ez den Espainiako, Europako, eta Nafarroako toki entitate bakoitzak duena»; horrenbestez, zuzenbidez guztiz deuseza da bestelako banderen erabilera.

1981ean lehen aldiz arautu zenetik Nafarroako armariaren eta banderaren erabilera, metaturiko esperientziak erakutsi du ofizialki Nafarroako sinbolo gisa ezarritakoak ez diren beste batzuen bazterketaren eta debekuaren bideak ez duela ezer ere konpontzen. Aitzitik, azken batean bultzatu den lege-arauketak bidea eman du konfrontaziorako eta toki entitate desberdinetan sinbolo ofizialekin batera gehiengoan onespina zuten sinboloen debekurako.

Nafarroan akordio politiko eta instituzionala lortu arte, herritarren asmo zilegi guztiak biltzen dituen eta barne-hartzailea den sinboloen foru lege berri bati buruzkoa, beharrezkoa da indarrean dagoen Sinboloei buruzko Foru Legea indargabe-

tzea, sinboloei buruzko tolerantzia- eta integrazio-politika demokratiko bat garatu ahal izateko.

Artikulu bakarra. Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen da.

Lehenengo xedapen iragankorra. Sinboloei buruzko foru lege berri bat onetsi arte, Nafarroako ereserki gisa mantenduko da «Gorteen Himnoa» deiturikoa.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan beken arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

JABELDURA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkezturiko jabeldura erretiratu duela. Jabeldura Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan beken arloan darabilen politika orokorrari

buruzkoa zen, eta 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Agenda Digital berri bat idatz dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Agenda Digital berri bat idatz dezan:"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Agenda Digital dinamiko berri bat idatz dezan, bizi dugun garaiarekiko egokitzapenak eskatzen dituen aldaketa etengabeak onartuko dituen, arlo digitalarekin lotuta dauden ekintza guztiak barnebilduz, baita departamentuek egindako proposamenak ere, Espezializazio Adimentsuaren Estrategia eta IKT eskari soziala, irizpide solidario,

garden eta inklusiboekin, eta ingurumena ondo kontuan hartuta.

Agenda Digitalean jaso beharreko jarduera guztiaren agintari edo arduradun bakar bat ezar dezan, koordinatzearen ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, hezkuntzaren, osasunaren, Gobernu Irekiaren nahiz bizi dugun bilakaera teknologikoarekin zerikusia duen beste edozein arloren gaineko politika.

Lan-mahai bat era dezan Nafarroako Gobernuko departamentu eta enpresa publiko guztietako ordezkariekin, aldi-aldi ebalua ditzaten gertatu gertatuko diren aldaketak eta berrikuntzak, hartara Agenda Digitalaren agiri bizi bat egonen baita:"

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urratsak egin ditzan hizkuntz normalizazioko politikak koordinatzeko batzorde bateratu bat eratzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urratsak egin ditzan hizkuntz normalizazioko politikak koordinatzeko batzorde bateratu bat eratzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urratsak egin ditzan, europar markoak eskaintzen duen mugaz gaindiko eskemaren barruan, eta zehazki Akitania Berria-

Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen markoaren barruan, batzorde komun bat sortzeko, hizkuntza normalizazioko politiketan kontsulta, informazio eta lankidetzaren helburuak izanen dituena. Batzorde hori osatuko lukete Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzak eta HELEP deritzon Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoaren erakunde komunak. Aipatu erakundeek, beren eskumenen esparruan, zilegi izanen dute euskara sustatzearen alde diharduten eragile edo erakundeei nahiz udal-mailako entitateei dei egitea eremu horretan lan egiteko”.

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da planifikazio-neurriak har ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da planifikazio-neurriak har ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Pairatutako murrizketei amaiera eman ahal izateko jarraitu beharreko ibilbide-orria planifika dezan, sindikatuarekin batera, eskola-itun berri baten bidez (ratioak, irakastorduak, ordezkapenak eta abar), eskola publikoaren kalitatea hobetzen jarraitu ahal izateko.

2. Irakasleentzako prestakuntza-plan bat ezar dezan, egungo erronkei erantzunen diena, berrikuntza etengabea eta jardunbide egokiak ahalbidetuko dituena eta etekina aterako diena irakasleen nahiz Administrazioaren ahaleginei.

3. Irakasleen egonkortasuna bultzatzea eta plantilletako bitarteko langileen kopurua murriztu dezan, halako moduan non talde didaktikoak sortzea eta sendotzea eta egiten ari diren proiektuak sendotzea ahalbidetuko baita.

4. Ikastetxe publikoentzako laguntza ekonomikoa ziurta dezan, jatorri ekonomikoari zor zaizkion desberdintasunak konpentsatu ahal izateko.

5. Ez dadin ikaslerik gera, bere borondatearen kontra, ikastetxetik at programatutako hezkuntza-jardueretan parte hartzeko aukerarik gabe; zeren eta, sarritan, eskola publikoko ikasleen zenbait sektore kultur edo kirol jardueretan parte hartu gabe gelditzen baitira horretarako ahalmen ekonomikorik ez dutelako (aste zuria, txangoak, interpretazio-zentroetara edo museoetara egindako bisita gidatuak, eta abar).

Zuzendaritzek, tutoreekin eta orientazio-zerbitzuekin batera, beharizan horiek ase ditzaten eta eraginkortasunez eta diskrezioz joka dezaten, eta Hezkuntza Departamentuaren lehentasunezko laguntza zalantzagabea izan dezaten. Halaber,

azpielikatutako ikasleen oinarritzko beharrianetarako diru-laguntzak eman ditzaten”

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foruzaingoa sar dezan erretiro-adina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartzen dituen Errege Dekretuan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foruzaingoa sar dezan erretiro-adina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartzen dituen Errege Dekretuan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Espainiako Gobernuari helaraz diezaion Nafarroako Foruzain lanbidea jarduera nekagarri, arriskugarri, osasungaitz edo toxikoen artean sartzeko borondatea, erretiro-adina aurreratzeko moduko zuzentze-koefizienteak ezarri ahal izateko.

2. Espainiako Gobernuari eska diezaion Nafarroako Foruzaingoa sartzeko tokiko polizien erretiro-adina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartze aldera prestatzen ari den errege dekretuan, behin eginda araudiak ezartzen duen nahitaezko txostena, istripu-kopuru orokorra aztertzeko adinaren arabera eta bajaren iraupenaren

arabera, bai eta muturreko istripu-kopuru ere, bajaren uneko langile kopuruarekikoa.

3. Espainiako Gobernua premiatzea 1698/2011 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren aplikazioa ahal den neurrian ahalbidetu dezan, emaitza egoki bat ahalik eta lasterren lortzearen.

4. Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeko Bartzorde Mistoan akordio bat lor dadin, Estatuak urteko kopuru bat finantzatzeko, erretiro adina aurreratzearren eta erretiroa aurreratzeko den urte horietako prestazioak handitzearen ondoriozko kotizazio-galeragatik ezarri beharko liratekeen kopuru ginkargatuei dagokiena. Zenbateko hori izanen da Estatuak segurtasun kidego eta indarren kideek klase pasiboen araubidean erretiro aurreratua hartzen dutenean Estatuak Administrazioak ordaintzen duenaren parekoa.

Langileen kontingentzia arruntengatiko kotizazioaren gehikuntza-portzentaje gisa ordaindu beharreko zenbatekoa eta Nafarroako Foru Administrazioak ordaindu beharreko portzentajea kasuko negoziazio-esparruan aurkeztuko dira”

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaio tratamenduari buruz, eta hedabideetan emakumezkoen kirola ikusaraztea bultzatzea dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaio tratamenduari buruz, eta hedabideetan emakumezkoen kirola ikusaraztea bultzatzea dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan Nafarroako hedabide jeneralistetan eta kirol informaziokoetan emakumezkoen kirolak duen presentziari eta ematen zaion tratamenduari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hedabideetan emakumezkoen kirola ikusarazteko pizgarri izanen diren neurriak har ditzan.”

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da onura publikoaren deklarazioa ken diezaion Hazte Oír elkarteari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da onura publikoaren deklarazioa ken diezaion Hazte Oír elkarteari.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Hazte Oír elkarteari Barne

Ministerioaren bidez onura publikoaren deklarazioa ken diezaion.

Nafarroako Parlamentuak erakunde publiko eta pribatu guztiak premiatzen ditu –bereziki, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua– egin beharreko urrats guztiak egin ditzaten LGTBI+ pertsonen eskubideak osorik aitortzeko, arreta berezia jarrita adingabe transexualek diskriminatuak ez izateko eta beren errealitatearen normalizazioarako eta ulermenerako daukaten eskubidean.”

Iruñean, 2017ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak idazki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2017ko martxoaren 29koa, non eskatzen baitu 2017ko apirilaren 18tik 21era bitarteko lan-asteen goizeko lanaldia ezartzea, aipatu asteen ez dagoelako aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik.

Parlamentuaren eta aipatutako Langile Batzordearen arteko 2002 eta 2003. urteetarako Hitzarmeneko 3.2.a) idatz-zatian xedatzen da Aste Santuaren ondoko asteen goizeko lanaldia ezarriko dela Parlamentuko lanari buruzko aurreikuspenek horretarako aukera ematen badute.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen arteko 2008-2011 eperako Hitzarmeneko 10. idatz-zatiarekin eta arestian aipaturiko Hitzarmeneko 3.2 idatz-zatiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Aldatzea Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia; halatan, 2017ko apirilaren 18tik 21era bitarteko egunetan lanaldia goizekoa izanen da, baina horrek ez du ezertan eragotziko beharrezkoak diren langileak eskuragarri egotea Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo egiteko, beharrezkoa izanez gero.

2. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez one tsitakoa, eta ezar tzea 2017ko apirilaren 18tik 21era bitarteko egunetan 09:00etatik 14:30era bitarte egonen dela zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Langileen Batzordeari, Legelari Nagusiari eta Legebiltzarreko Zerbitziburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

